




EAEko ekonomiaren termometroa 88,4an kokatu da




Urrian, EAEko ekonomiaren termometroa 88,4 puntutan kokatu zen eta beste hilabete batez hazkunde leuneko eremuan jarraitzen du. Horrela, uztailen hasitako goranzko joera txikia berresten da, inbertsioaren hazkundeari eta zerbitzuek oraindik erakusten duten sendotasunari esker.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Txikizkako merkataritza %0,7 hazi zen EAEn

Txikizkako merkataritza guztira
Urte bakoitzeko hirugarren hiruhilekoa. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako informazioaren arabera, **2023ko hirugarren hiruhilekoan txikizkako merkataritzako salmentak %0,7 gehitu ziren EAEn aurreko urtearen aldean.** Igoera hori automobilgintzarako erregaietan oinarritu zen batez ere, %5,8ko gorakada izan baitzuten. Era berean, elikadurak %1,4ko hazkunde izan zuen, eta gainerako produktuen salmentak, ordea, %0,7 egin zuen behera.



Irailera arte 2.353 enpresa sortu ziren Euskadin

Euskadin sortutako enpresak
Urte bakoitzeko urtarriletik irailera




Iturria: INE.

2023ko lehen bederatzzi hilabeteetan 2.353 enpresa eratu ziren Euskadin, aurreko urteko aldi berean baino %4,4 gehiago. Erregistro hori aurreko urteetan lortutakoaren oso antzekoa da, salbuespen bakarra 2020. urtea delarik. Aurten jarritako kapitala 148 milioi eurotik gorakoa izan da.

Desagertu diren EAEko enpresen kopurua jaitsi da

Euskadin desagertutako enpresak
Urte bakoitzeko urtarriletik irailera



Iturria: INE.

Urtarriletik irailera bitartean, Euskadin 1.005 enpresa desagertu ziren, 2022ko aldi berean baino hogeita hamalau gutxiago. Hori horrela izanda, azken bi urteetan, elkarren segidan, itxi diren enpresen kopurua zertxobait murriztu da.